

17. KULTURA, KOMUNIKAZIO ETA GARAPENERAKO NAZIOARTEKO TOPAKETA

Giza eskubideak defendatzeko erronkak eta
estrategiak kriminalizazio-eta errepresio-garaietan



EKAINAK 1 - 2
BIZKAIA ARETOA - EHU

EHU Uda Ikastaroak 2026



KCD GGKE

IFK: G95550943

Beurko Viejo 3 Pabellón 38 - Of. 12

CP 48902 - Barakaldo - Bizkaia

Kontaktua

Telefonoa: 94 602 46 68

E-mail: info@kcd-ongd.org

www.kcd-ongd.org

Edizioa: KCD ONGD

Diseinua: Binari Comunicación

Testua: Andrea Ruiz Balzola

AURKIBIDEA

EGITARAUA 2026	4
GIZA ESKUBIDEAK DEFENDATZEKO ERRONKAK ETA ESTRATEGIAK KRIMINALIZAZIO-ETA ERREPRESIO-GARAIETAN	6
PARTE-HARTZAILEAK	16



16. KULTURA, KOMUNIKAZIOA ETA GARAPENERAKO NAZIOARTEKO TOPAKETA

**“Giza eskubideak defendatzeko erronkak eta
estrategiak kriminalizazio-eta errepresio-garaietan”**

EHUko Uda Ikastaroak

Bilbao, 2026ko ekainak 1 eta 2

E G I T A R A U A 2 0 2 6

> EKAINAK 1

Topaketaren inaugurazioa erakundeekin

EHU · KCD GGKE · eLankidetzaz - Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia
· Bizkaiaiko Foru Aldundia · Gipuzkoako Foru Aldundia · Bilboko Udala.

Inaugurazio-hitzaldia

Irantzu Mendia Azkue (Euskadi)

Kazetaritza-elkarrizketa: Herrien erresistentziak giza eskubideak sistematikoki urratzen diren testuinguruetan: Palestinaren eta Sahararen kasuak

Bárbara Ruiz Balzola (Euskadi)

El Ghalia Djimi (Mendebaldeko Sahara)

Shahd Abusalama (Palestina)

Solasaldia: EL SALVADORren kasuaren azterketa: Errepresioaren eta kriminalizazioaren aurrean eskubideak defendatzea

Aranza Santos (El Salvador)

Judith Barrera (El Salvador)

Loida Martínez Avelar (El Salvador)

➤ EKAINAK 2

Solasaldia: Giza eskubideen defendatzaileak babesteko estrategiak

Verónica Portell (Euskadi)
 Sebastián Escobar Uribe (Kolonbia)
 Verónica Álvarez García (Euskadi)
 Eneko Gerrikabeitia Zenarrutzabeitia (Euskadi)

Solasaldia: Komunikazioa eskubideen lurralde: begirada intersektionala duen komunikazio kontrahegemonikoa lortzeko erronkak

Loida Martínez Avelar (El Salvador)
 Guillermo Monforte Maurizio (Mexiko)
 M^a Ángeles Fernández González (Espainia)
 José Martínez (Erdialdeko Amerika)

Solasaldia: Memoria historikoa, erreparaziorako eta ez erreplikatzeko estrategia

Ainara Larrondo (Euskadi)
 Sebastián Escobar Uribe (Kolonbia)
 Denise Géraldine Brunet (El Salvador)
 María Oianguren Idigoras (Euskal Herria)

Hitzaldia: Intentsitate Txikiko Estrategia Soziala (ESBI). Nola eutsi eta aurrera eginarazi borrokei ziurgabetasun eta kriminalizazio garaietan

Juan Carlos Vázquez (Euskadi)

Amaiera eta ondorioak

Joseba Villa (Euskadi)

Performance artistikoa

Shahd Abusalama (Palestina)



EHUko errektoreordea, Bilboko Udaleko zinegotzia, Gipuzkoako Foru Aldundiko zuzendaria, Bizkaiko Foru Aldundiko zuzendaria eta KCD GGKEko zuzendaria, topaketaren inaugurazioan.



GIZA ESKUBIDEAK DEFENDATZEKO ERRONKAK ETA ESTRATEGIAK KRIMINALIZAZIO- ETA ERREGRESIO- GARIAETAN

«Betebeharraren xedea, giza gauzen eremuan, gizakia bera da beti. Gizaki ororekiko dago betebeharra, gizaki izate hutsagatik, beste inolako baldintzarik gabe».

Simone Weil

KCDk (Kultura, Communication y Desarrollo) giza eskubideak defendatzeko estrategien inguruan sortu dituen topaketa, elkarrizketa, entzute eta trukez beteriko bi egunen ondoren, argi dago aldaketa bortitz eta azkarreko une batean gaudela, erabateko metamorfosian murgilduta, **Juan Carlos Vázquez**ek adierazi zuenez. Testuinguru hori ez da guztiz berria; izan ere, badirudi iraganeko elementuak berreskuratu dituela, errepikatu nahi ez genuen iragan batekoak, eta elementu horiek kokatu eta esanahi berriz hornitu dituela, ziurgabetasun-garai hauetan. Halaber, egia da zenbait herrirentzat —adibidez, palestinarrak eta sahararrak— testuingurua ez dela berria; lotu-lotua dago okupazioa, indarkeria, errepresioa eta oinarrizko eskubideen ukatzea nagusi izan ziren iragan batekin.

Irantzu Mendiak, sintesi-ariketa bikainean, egungo testuinguru horren ikuspegi globala eskaini zigun, haren inguru nagusiak azalduz. Zalantzarik gabe, **gatazka armatuen gorakada** da bat —asko eta asko Afrikan, Asian eta Ekialde Hurbilean metatzen dira—. Halere, badira gatazka armatu irekita iristen ez diren gerra-tentsioko egoerak ere, gatazka geopolitikoek, lurralde- eta nortasun-gatazkek eta gobernuen arteko aurkakotasunek



Irantzu Mendia, inaugurazio hitzaldian.

eragindakoak¹. Bi agertoki horiek daude munduan 123 milioi pertsona baino gehiago lekualdatzera behartzen dituzten arrazioen atzean. Desplazamenduok, gainera, migrazio- eta asilo-politika gero eta murriztai-leagoak² dituen testuinguru batean gertatzen dira.

Gatazken igoaldi horrekin batera, terrorismoaren aurkako gerra globala deitu zaiona hasi zenetik, **gure gizarteak bermilitarizatu** egin dira: eremu militarreko eta belikoko aurrekontuek gora egin dute nazioartean; % 7,9, zehazki. Baina kontua ez da gastua handitu izana soilik; badago politika militarizatzeko prozesu bat (adibidez, El Salvadorreko egungo Hezkuntza, Zientzia eta Teknologia ministroa, Nayib Bukelek izendatua, indar armatuetako kide da), bai eta polizia indar militarren mende jartzeko prozesu bat ere. Bestalde, logika militarra (gerrarena) gizarte zibiletara ari da eramaten; adibidez, armadak, Espainiako Larrialdietako Unitate Militarren (UMEn) kasuan bezala, esku hartzen duenean eta ekintza humanitarioaren heroi gisa aurkezten denean.

Ez da harritzekoa, beraz, armagintzaren gorakada eta industria teknologikoa gerraren zerbitzura edo —Alemanian, kasu— automobilgintzaren sektorearen zerbitzura jartzea. Gorakada horrekin batera, berrarmatze-

1 Halaxe definitzen du Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Escola de Cultura de Pau (ECP) delakoak.

2 Aurtengo ekainaren 12an bertan jarri zen indarrean Europako Migrazioarako eta Asilorako Ituna, zeinak eustean, esternalizazioan eta sekurizazioan oinarritutako kudeaketa-ikuspegi bat finkatzen baitu.



-diskurtso bat hedatu da, segurtasuna *versus* askatasuna dikotomia faltsutik elikatzen den segurtasunik ezaren pertzepzio globalak areagotua. Segurtasunik ezaren pertzepzioa da, hain zuzen ere, eskubideak murrizteko aitzakia gisa erabiltzen dena. Eta segurtasun nazionalaren behararren ideiak ahalbidetzen du kanpoko zein —zigortu, isildu eta ezabatu ere egin behar den— barruko etsai bat sortzea.

Dikotomia faltsu horren adibide izan ziren **Aranza Santosen**, **Judith Barre-raren** eta **Loida Martínezen** hitzak, **El Salvadorren** kasua gurekin partekatu zutenean. «Orain ez dago *pandillero* edo bandakiderik» kontakizunak ezkutatu eta deslegitimatu egiten du pobreziari, lurren eta baliabideen —ura, tartean— estraktibismoari eta eskubideen atzerakadari buruzko edozein zalantza. Giza eskubideen hiru defendatzaile horiek erakutsi ziguten, nork bere espezializazio-eremutik, Nayib Bukele El Salvadorren egiten ari den politikak giza eskubideen atzerakada masiboak eta oinarrizko berme demokratikoen desagitea legitimatu dituela segurtasunaren diskurtsoaren bidez.

Illo horretan, eta erresistentziaren ikuspegitik, oso interesgarria izan zen segurtasunaren beste adiera batzuk diskurtsiboki berreskuratzeko Irantziaren proposamena, hala nola **giza segurtasunaren** ideia, hainbat dimentsiotatik: ekonomikoa (etxebizitza, lana, hezkuntza), osasunarena, klimatikoa, pertsonala (indarkeriarik gabeko bizitzak), komunitarioa (parte-hartzea) eta politikoa. Eta giza segurtasun hori segurtasun militarizatuarekin kontrajartzea. Ekintzatik abiatuta, Euskadin hainbat mugimendu ditugu, begirada internazionalistatik desmilitarizazioaren alde borrokan, eta gerra eta gure portuetatik ateratzen diren Espainian egindako arma-eta lehergai-kargamentuen itsas garraioa salatzen. Feminismoan ere badugu ezagutza metatu bat, eta aukera dugu hortik ikasten jarraitzeko.

Egungo testuinguruaren funtsezko beste elementu bat **eskuin-mutur-raren gorakada** da, eta horrek ekarri duen giza eskubideak babesteko, deslegitimatze eta izen ona kentzeko mekanismoen atzerakada. Une honetan, giza eskubideen defentsa gehiegizko ideologizatiotzat hartzen da. Eskuin-muturra boterean sartzeko prozesuak oso azkarrak izan dira batzuetan; adibidez, Nayib Bukelerena El Salvadorren eta Javier Mileirena Argentinan. Beste batzuetan, oster, motelagoak eta isilagoak izan dira prozesuok; berbarako, José Antonio Kastena Txilen. Lehenengo kasuan, demokrazia azkar desagiten da, modu egituratu eta performatuan; bigarreanean, berriz, ustezko neutraltasun batetik gauzatzen da deuseztapena. Baina, guzti-guztietan, demokrazia liberala barrutik husten da, eta gobernu iliberalak sortzen dira. Eta Irantzuk ohartarazi zigunaren arabera, horregatik da garrantzitsua eskualdeko eta nazioarteko erakundeak ez uztea, muga, inperfekzio eta alborapen ugari izan arren. Izan ere, hortik bakarrik aktiba daitezke estatu horien boterea mugatzeko kontrapisuak,

zeinak, gainera, eskualdeko eta nazioarteko erakundeetan presentzia handitzen saiatzen diren, zuritze-ariketa bat eginez.

Irantzuk esaten zigun militarizazio hori eta autoritarismoaren handitzea inolako frenorik gabe **gainezka egin duen kapitalismo neoliberalaren** ondorio direla, eta, horregatik, desberdintasunak kezkatzeko moduan ari direla areagotzen gure gizarteetan. Makineria hori, lehenik eta behin, bizitzaren pribatizazioan eta merkantilizazioan oinarritzen da —azpikontartzazioaren ideiapean batzuetan, lankidetzat publiko-pribatuaren ideiapean, beste batzuetan—; bigarrenik, austeritate fiskalean eta, azkenik, deserregularizazioan. Aurrez aurre dituzte beti eskubideak arautzean oinarritu izan diren borroka sozialak.

Makineria horren pean, emakumeen, LGTBIQ+ pertsonen eta beste kolektibo minorizatu batzuen eskubideak dira gehien sufritzen dutenak eta zalantzan jartzen direnak. Erlijio-fundamentalismoak eta irakurketa kulturalistegiek eskubide horiek erasotzen dituzte, iruditzen zaielako zalantzan jartzen dituztela hainbat balio, esaterako familia tradizionalarekin lotutakoak, edo aldatu ezin diren antzinako tradizioak. Diskurtso horiek hasiak dira ezkerreko posizioetan ere sartzen; esaterako, entzuten dugunean «feminismoa urrunegi joan dela» edo eskubideak hierarkizatzea planteatzen digutenean, emakumeenak edo beste kolektibo batzuenak bigarren edo hirugarren mailan utziz. Aranza Santosek, El Salvadorreko bere testuingurutik eta trans emakumea den aldetik, eskubideak zalantzan jartzearen adibideak eman zituen: «nomadak eta migratzaileak gara gure herrialdean bertan». Izan ere, ez dute legezko aitortzarik, eta ukatu



Denise Géraldine Brunet, Sebastián Escobar, María Oianguren eta Ainara Larrondo, memoria historikoari buruzko solasaldian, prestakuntzarako eta errepikapena saihesteko estrategia gisa.



egiten zaie existentzia bera. **Loidak** amen, alaben, emakumezko kideen eta emazteen zeregina azpimarratu zuen, El Salvadorren haiek baitira, presoak irensten dituen salbuespen-araubide batean, 2022az geroztik espetxeen kanpoaldean elkartzen direnak, maite dituzten pertsonei buruzko informazioa lortzen saiatzeko. Judithek lurralde horietako emakumeen zereginaz hitz egin zuen, komunitateetatik zein erbesteetatik egiten duten lanaz: antolatzea, zaintzea, erakustea, gorputza jartzea eta abar.

Ingurumen-eskubideen defendatzaileak ere jazarri eta kriminalizatu egiten dira, krisi klimatikoaren testuinguruan. Estraktibismoa eta neokolonialismoa gogortzen ari diren hegoalde globalean, emakumeek, indigenek eta tokiko emakumezko buruzagiek lurra, ura eta ekosistemak babesten dituzte, estraktibismo horren eta klima-aldaketaren aurrean. Interes korporatibo botereitsuak zalantzan jartzeagatik askotan arrisku larriei, kriminalizazioari eta indarkeriari egin behar izaten diete aurre. Baina, iparraldean ere gauza bera ari da gertatzen: Jorge Riechmann filosofo eta unibertsitateko irakasleak, esate baterako, zigor-arloko bi prozesu judizial ditu zain, klima-larritasunaren aurrean ezer ez egitearen aurkako protesta-ekintzetan eta desobedientzia zibil baketsuan parte hartzeagatik.

Mendebaldeko Sahara eta Palestina dira mundu modernoko deskolonizazio eta lurralde-okupazio gatazkarik luzeenetako bi. Horregatik esan dugu hasieran ez gaudela testuinguru berri baten aurrean, herri horien giza eskubideen urraketa sistematikoaren jarraipena dela. **El Ghalia Djimik** eta **Shahd Abusalamak** ziurrenik askorentzat ezaguna den baina behin eta berriz kontatu beharra dagoen historia batera hurbildu gintuz-



Bárbara Ruiz, El Ghalia Djimi eta Shahd Abusalama (zoom bidez) herrien erresistentziei buruzko elkarriketan, giza eskubideen urraketa sistematikoaren testuinguruetan: Palestinaren eta Sahararen kasuak.

ten atzo. Palestinaren kasuan, Shahdek salatu zuen genozidioak indarrean jarraitzen duela Gazan, Jerusalemen, Zisjordanian eta Libanon, *su-eten* baten erdian egon arren. Uste dut Palestinako akademiko, idazle eta artista horren begietan antzeman daitekeen oinaze sakonak, urradurak, ezintasunak, etsipenak eta haserreak guztiok astindu eta hunkitu gintuela, eta errealtate jasanezin batekin konektatu gintuela.

Mendebaldeko Sahararen eta Palestinaren sustrai historikoek **lurraldeen okupazioari** buruz hitz egiten digute; kasu batean, huts egindako XX. mendeko deskolonizaziotik abiatuta, eta, bestean, britainiarrek asmo sionistei emandako oniritzitik abiatuta. Bi kasuetan, eragin handia izan zuen Europako potentziak bat-batean erretiratzeak eta bizilagunik botere-tsuenen berehalako inbasioak. Palestinako *Nakbaren* (1948) eta Saharako exodoaren (1975-1976) ondorioz iheslarien esparruak sortu zituzten, eta hantxe jaioko eta biziko dira ondorengo emakume- eta gizon-belaunaldiak: Gazan, Zisjordanian, Jordanian, Libanon eta Sirian (Palestinaren kasuan) eta Aljeriako *hamadako* Tindufen (Sahararen kasuan).

Bi kasuetan, okupazioak estrategia bat partekatzen du: kontrol geografiko, demografiko eta ekonomikoa, *de factoko* anexio bat finkatzeko eta estatu independente bat sortzea eragozteko. Bi kasuetan, historian eta bidezko defentsan oinarritutako kontakizun bat eraikitzea, kontrola, espoliazioa, bortxaketak eta genozidioa legitimatzeko eta justifikatzeko. Eta, zoritxarrez, bi kasuetan, Mendebaldeak ez ezer egitea eta potentzia handiek indar okupatzaileei laguntza esplizitu edo inplizitua ematea erabakigarria izan da, bi okupazio horiek hainbat hamarkadaz luzatzeko eta, 2023ko urritik, Gazako genozidioa onartzeko eta haren konplize izateko.

Bai Palestinan eta bai Mendebaldeko Saharan, giza eskubideen defendatzaileak zaintzapean bizi dira, ekonomikoki itota, isolatuta eta errepresaliak jasanez. Beldurrean oinarritutako mekanismoa da, helburutzat duena gainerako biztanleei burutik kentzea protesta-ekintzei ekiteko edo haiekin bat egiteko asmoa. Errepresalien artean dago pertsonak desagerraraztea; esaterako, El Ghaliaren ama, eta El Ghalia bera. Eta, hala ere, argi eta garbi esan zuen: «ez gara biktimak, ez gara bizirauleak; aktore politikoak gara, Saharako herritarrak». Eta lapurtu ezin izan dieten duintasunetik, El Ghaliak eta Shahdek nazioarteko komunitatearen erantzukizuna eskatu zuten, eta mendebaldeko herrialdeen hipokrisia salatu. Eta mugimendu antolatu eta espontaneoek dei egin zieten, oihu eta borroka egiteaz gain salatu eta seinalatu egiten dutenei. «Ausartak izan behar dugu —esan zigun Shahdek—; antolatu egin behar dugu, konektatu, kontuak eman ditzaten eskatu, gure gobernuak Israelekin harreman komertzial, politiko, militar eta akademikoak eten ditzaten eskatu; berdin Marokorekin ere. Zapalkuntza desnormalizatu behar dugu».





Aranza Santos, Judith Barrera eta Loida Martínez, El Salvadorri buruzko hitzaldian.

Ikus dezakegunez, Irantzuk aurkeztu zigun egoerak hainbat dimentsio ditu, eta horietan guztietan ekintza kolektiboak, mugimenduak eta gizarte-eragileak daude, **erresistentzia egiten** eta borrokan. Horren erakusgarri izan ziren atzo **Sebastián Escobarrek** (Kolonbia) eta **Verónica Álvarezek** eta **Eneko Gerrikabeitiak** (Euskadi) aurkeztu zizkiguten estrategiak. Irantzuk bere hitzaldiaren hasieran aipatu zuen iraganeko elementuen itzulera horren adibideak eskaini zituen Sebastiánek. Kolonbiako giza eskubideak defendatzen dituen gobernu kanpoko erakunde (GKE) zahar, eragingarri eta historikoenetako bateko kide da, eta kontatu zigun nola berriz ari diren aurre egiten 80ko hamarkadan segurtasun nazionalaren izenean gertatu ziren errepresio-estrategiei. Veronicak **NARE** aurkeztu zigun (Giza Eskubideen Defendatzaileak Babesteko Euskal programa), eta, bere esperientziatik abiatuta, lanerako hiru gako eskaini zizkigun: herrien elkartasunetik berriz ere elkartzea; dekolonialitatetik lan egitea, laguntzeko beste modu batzuk bilatuz eta horrek pertsona zurioi ekar diezazkigukeen deserosotasunak onartuz, eta European eta gure herrialdean ere izaten ari garen atzerakadak, autonomia-erkidego batzuetan lankidetzarako eta babeserako funtsak desagertzen ari baitira. Enekok azaldutakoaren arabera, **Martin Etxea** babesleku politiko, sozial eta humanitario bat da; baina, batez ere, internazionalismo-esperientzien nitxo bat. Eta gauza garrantzitsu bat azpimarratu zuen: beren laguntza jasotzen duten pertsona autonomo horiek etorkizunetik datoz, eta gure gizarteetan gerta daitekeena begiratzera eta zaintzera adoretzen gaitu etorkizun horrek.

Eta prozesu horietan funtsezko elementu bat dago: **komunikatzeko** ekintza. Baina ez da tresna hutsa, baizik eta berez oinarritzkoa den giza eskubide bat; alegia, pertsonaren gaitasun bat, nahi duena adierazteko, egiazko informazioa eskuratzeko, bizitza kulturean parte hartzeko eta bere historiaren protagonista izateko. **Guillermo Monforte Mauriziok, M.**

Ángeles Fernández Gonzálezek eta José Martínezek beren testuinguru espezifiko eta partikularragoetatik jorratu zuten gaia; baina, berez, testuinguruok konektatuta daude, ezaugarri hauek nagusi dituen agertoki batean: sare sozialen algoritmoen bidez gorrotoa biralizatzea eta bestelako hedabideak banalizatu eta ikusezin bihurtzea —edo erasotzea—. Bestelako hedabideez ari garenean, irratik komunitarioak ditugu buruan, adibidez. Historikoki gutxietsita egon badira ere, bizirik irautea lortu dute, eta bestelako komunikazio-modu bat eskaini dute, desagertzeko arriskua gero eta handiagoa den testuinguruetan, hala nola Oaxacan 2006an bizitakoak bezalako errepresio- eta indarkeria-egoeretan. Egoera zail horietatik, Guillermok ikaskuntza bat eta gomendio bat ekarri zizkigun pertsonak babestearekin eta zaintzearekin lotuta: arrisku-egoeretan egotea gustatzen zaizunean, irten egin behar duzu. Izan ere, gustatzetik automatismoa urrats bakarra dago. Europako testuingurutik eta, zehazki, Euskaditik, M. Ángelesek **Pikara Magazine**ren bitartez eskuratutako esperientzia eta ikaskuntzak partekatu zizkigun. **Pikara Magazine** autofinantzaketan oinarrituriko hedabide independentea da, kazetaritza eta iritzia ikuspegi kritiko, feminista eta urratzaile batetik eskaintzen dituen, gozamina alde batera utzi gabe. Edukiak sortzen dituzten ahotsak zabaldu eta dibertsifikatu behar direla nabarmendu zuen M. Ángelesek. Eta horren arrazoiak Iparraldeetan maiz ahaztu egiten zaigun gauza simple bat da: «jendeak ahotsa du, baina bozgorailua falta zaio».

Ez dira garai errazak komunikaziorako. Eta are gutxiago **adierazpen-askatasunerako** eskubidea —lortuta egon arren defendatzen jarraitu behar dena— bada gu erasotzeko arrazoiak. Adierazpen-askatasunaren ideia bitxi baten izenean, gorroto-diskurtsoak, kalumniak, erasoak eta diskriminazioa bultzatzen ari dira batzuk. Ideia horrekin, Josék eztabaida askoz zabalago bat ireki zuen: adierazpen-askatasunerako eskubidearen mugena, agian gaur egungo dilema juridiko eta etiko konplexuenetakoa denarena.



Verónica Portell, Verónica Álvarez, Sebastián Escobar eta Eneko Gerrikabeitia, giza eskubideen defendatzaileen babes-estrategiei buruzko solasaldian.



Alderdi garrantzitsu bat behin eta berriz agertu zen Joseren, M. Ángelesen eta Guillermoren hitzetan: presentzia. «Egon gabe» egotea agintzen digun presentzialitatearen aro digital honetan, kontaktua, jarrera, igurtzimendua, begirada eta abar eskatzen ditu **presentziak**. Santiago Alba Rico filosofoak dioten moduan, benetako politika egiteko, gorputz indibiduala eta kolektiboa behar ditugu. *Bestearekiko* (desberdina denarekiko) *igurtzimendu* fisikorik gabe, enpatia ahuldu egiten da eta zinismoak edo biktimismoak hartzen dute haren lekua. Eta presentzia hori ezinbestekoa da, krisi- eta kriminalizazio-garai hauetan borrokei eusteko eta aurrera egiteko Juan Carlos Vázquezek proposatu zigan intentsitate txikiko estrategia sozialerako (ESBI, gaztelaniazko sigletan). Izan ere, Juan Carlosek ESBIaren funtsezko elementu gisa aldarrikatu zuen emozioa, emozio politiko eta kolektiboa, nekez lor daiteke kontaktu fisiko baten bidez ez bada, zeinak digitalaren berehalakotasunaren eta azelerazioaren aurrean, denbora, geldotasuna eta espazioa behar baititu.

Komunikatzea **memoria kolektiboa eta indibiduala** aktibatzea da. Ez da informazioa bakarrik transmititzen; iraganarekin lotzen gaituen denbora-hari bat ezartzen da. Eta, hain zuzen ere, gauzak konpontzeko eta ez errepikatzeko estrategia gisa memoria historikoari buruz hitz egitera etorri zitzaizkigun **Sebastián Escobar Uribe**, **Denise Brunet** eta **María Oianguren Idigoras**. Hiru hizlarien ustez, bizi ditugun garaiak ez dira memoriarako onenak. Egiarako, justiziarako, erreparaziorako eta ez errepikatzeko eskubideak bermatzera bideratutako estatuko eta gizarteko ekimen-multzo oso bat duten hainbat herrialde —Argentina tartean—, arlo horretan atzerakada handia ari dira jasaten, boterera eskuin-muturreko alderdiak iritsi izanaren ondorioz. Denisek kontatu zigunaren arabera, antzeko zerbait gertatzen da El Salvadorren, non memoria iraindu eta amnesia sustatzen duen diskurtso bat inposatzen baita. Baina ahanztura eta amnesia ezin dira aukera bat izan. Eta, Sebastiánek zioenez, batzuetan adiskidetzea ere ez.

Sebastiánek galdera garrantzitsu bat egin zuen: lortzen ari gara memoriak eraldatzaileak izatea? Memoria eta desmemoria nahasten diren garaizail hauetan, saiatu saiatzen gara, erantzun zuen Mariak. Oroimenez beteta gaude, baina XX. mendeko utopiak desagertu egin dira. Eta horixe da, hain zuzen, dugun zailtasunetako bat: beste mundu batzuk irudikatzeko gaitasunari eustea, eta, beraz, memoria berreskuratzea, ez malenkoniarako eta immobilismorako, baizik eta **etorkizunera begira jartzeko**. Irudimenak eta memoriak eskutik helduta joan behar dute, eta zer lekutan bizi garen eta leku horietan nola bizi nahi dugun pentsatzeko, Mariak epistemologia eta metodologia feminista eta kritikoetara jotzea proposatu zigan.

Baina, Denisek proposatu zuenez, badira berreskura ditzakegun iraganeko elementuak, ideiak eta praktikak. Itxura batean atzean geratu dira

klase-borroka eta haserretzeko gaitasuna; baina, ziur asko, funtsezko gaiak izaten jarraitzen dute gaur egungo egoera ulertzeko, aztertzeko eta ekiteko. Juan Carlosek horixe nabarmendu zuen bere estrategia azaltzerakoan, eta errepikatzeko memoria historikoa deitu zion.

Azkenik, eta etorkizuneko memoriari dagokionez, gazteak eta haiekin konektatzeko gaitasuna erantzun beharreko funtsezko elementu gisa agertu ziren. Mariak azpimarratu zuenez, horretarako, garrantzitsua da ulertzea memoriaz hitz egitea ez dela iraganaz hitz egitea soilik. Gazteak hunkitu, bildu eta zirikatu behar dituen ariketa da. Memoriaren arloan funtsezkoa da entzutea eta gazteen kodeekin konektatzea, eztabaidatzen jarraitu ahal izateko. Memoria, eskubideak bezala, ez da irabazitako gauza bat.

Irantzuk inaugurazio-hitzaldiaren amaieran esan zuenez, gure borrokek lotuta egon behar dute. Eta, Mariak gero erantsi zuenez, ez dugu ahaztu behar denok bilbe beraren parte garela. Orobat, koherentzia behar dugu gure borroken eta politiken artean. Hala, gerraren aurkako mugimendua migratuak hartzeko sareekin konektatzen da, jornalarien borroka «ride-rrenekin», Israelen aurkako protesta Marokoren aurkakoarekin eta abar. Juan Carlosek azpimarratu zigunez, loturak bilatzea eta **aliantzak ezartzea** da helburua, eta, hortik aurrera, nazioarteko borroka ezartzea. ***Ez dezagun inoiz ahaztu giza eskubideen defentsaren aldeko borroka direla herriek estatuen abusuei aurre egiteko dituzten tresnak.***



PARTE-HARTZAILEAK



IRANTZU MENDIA AZKUE

(Euskadi)

HEGOA Nazioarteko Lankidetza eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutuko zuzendaria eta Soziologia eta Gizarte Lan Saileko irakaslea (EHU).



BÁRBARA RUIZ BALZOLA

(Euskadi)

UNRWA Euskadiko Ordezkaria.



EL GHALIA DJIMI

(Mendebaldeko Sahara)

Mendebaldeko Saharako Lurralde Okupatuko giza eskubideen defendatzailea eta ISACOMeko (Marokoren okupazioaren aurkako Saharako Instantziako) zuzendaritza-batzordeko kidea.



SHAHD ABUSALAMA

(Palestina)

Akademiko, aktibista eta artista palestinarra.



ARANZA SANTOS

(El Salvador)

Emakume trans feminista eta LGBTIQ+ aktibista salvadortarra, askotariko pertsonentzako osasun integrarean esperientzia duena. Eragin politikoan dihardu, interseksionalitateko eta justizia sozialeko ikuspegia duten legeak sustatzeko.



JUDITH BARRERA

(El Salvador)

Komunikatzailea eta ingurumen-eskubideen aldeko aktibista. Emakume nekazarien lurrerako eskubidearen defendatzailea.



LOIDA MARTÍNEZ AVELAR

(El Salvador)

El Salvadorreko Factum aldizkariko ikerketa-kazetaria, 2025ean Gabo saria irabazi zuena. Ustelkeriari eta giza eskubideen urraketei buruzko ikerketetan espezializatutako unibertsitateko katedraduna.



SEBASTIÁN ESCOBAR URIBE

(Kolonbia)

José Alvear Restrepo abokatu-kolektiboko (CAJAReko) presidentea. Abokatua, Medellingo Unibertsitate Autonomo Latinoamerikarrean.



VERÓNICA PORTELL

(Euskadi)

Kazetaria.



VERÓNICA ÁLVAREZ GARCÍA

(Euskadi)

Zehar-Errefuxiatuekin erakundeko Eraginaren eta Parte-hartze Sozialaren arloa. Giza Eskubideen Defendatzaileak Babesteko Euskal Programako (NAREko) koordinatzaile teknikoa.






ENEKO GERRIKABEITIA ZENARRUTZABEITIA

(Euskadi)

Mundubat elkarteko Gizarte Ekintzako koordinatzailea (Martin Etxea).



GUILLERMO MONFORTE MAURIZIO

(Mexiko)


Ojo de Agua Comunicación erakundeko bazkide sortzailea.



M^a ÁNGELES FERNÁNDEZ GONZÁLEZ

(Espainia)

Pikara Magazine aldizkariko koordinatzailea.



JOSÉ MARTÍNEZ

(Erdialdeko Amerika)

Alianza Centroamericana Trabajando Unida por el Agua y la Defensa de Derechos (ACTUAD) elkarteko koordinatzaile estrategikoa.



AINARA LARRONDO

(Euskadi)

Gureiker taldeko arduraduna eta kazetaria (EHU).



DENISE GÉRALDINE BRUNET

(El Salvador)

Equipo Maíz elkarteko zuzendaria.



MARÍA OIANGUREN IDIGORAS

(Euskal Herria)

Gernika Gogoratuz – Bakearen Aldeko
Aztertegiko zuzendaria.



JUAN CARLOS VÁZQUEZ

(Euskadi)

KCD GGKEren zuzendaria.



JOSEBA VILLA

(Euskadi)

KCD GGKEko gizarte-eraldaketarako
hezkuntzako teknikaria.







Beurko Viejo 3 Pabellón 38 - Of. 12

48902 - Barakaldo - Bizkaia

94 602 46 68

info@kcd-ongd.org

www.kcd-ongd.org



KCD
Kultura Communication Desarrollo
ONGD
ENTIDAD PÚBLICA DE UTILIDAD PÚBLICA
www.kcd-ongd.org

CINE
INVISIBLE
FESTIVAL INTERNACIONAL
FILM SOZIALAK 2026 BILBAO



E LANKIDETZARAKO ETA
ELKARTASUNEKOKO
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN Y
SOLIDARIDAD



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

B
Bilbao

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

(H)ABIAN
AGENTSIA D'INICIATIVA CÍVIL
AGENCIA DE INICIATIVA CÍVIL
AGENCIA DE INICIATIVA CÍVIL
AGENCIA DE INICIATIVA CÍVIL



EHU
Euzko Herriko Unibertsitatea
Universidad del País Vasco

Ap
AGENCIJA ZA
POSREDOVANJE
POSREDOVANJE
POSREDOVANJE

